

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

123

EBAZPENA, 2022ko urtarrilaren 4koa, HABEko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatu egiten baita udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiek, udal titulartasuneko euskaltegi publikoek, ikastaroen hasieran talde bakoitzeko izan behar duten gutxienerako ikasle-kopurua, 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzen onuradun izateko, euskaltegia kokatuta dagoen herriaren neurriaren arabera.

Normaltasun berrira egokitzeko asmoz, 2021eko urriaren 18ko ebazpenaren bitartez, aldatu egin zen udalen edo udal erakundeen menpeko euskaltegiek ikastaroen hasieran talde bakoitzeko izan behar duten gutxienerako ikasle-kopurua, 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzen onuradun izateko, euskaltegia kokatuta dagoen herriaren neurriaren arabera, eta 2021eko azaroaren 1etik aurrera hasitako taldeei dagokienez.

Biztanle-kopurua	< = 5.000	5.001–10.000	10.001–25.000	> 25.001
Talde bakoitzeko gutxienerakoa	6	7	8	9

Datu ofizialen arabera, egoerak, hobera egin ordez, okerrera egin du, eta, lehendakariaren 2021eko abenduaren 2ko 44/2021 Dekretuaren bidez, berriz ere osasun larrialdi egoera deklaratu zen (EHAA, 2021eko abenduaren 3an argitaratua). COVID-19ak sortutako pandemia kudeatzeko neurriak jasotzen dituen ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 7. eta 34. artikuluen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa 5. mailako larrialdi-egoeran kokatu da, kutsakortasun-maila oso handiarekin.

HABEko aholkularitza juridikoak 2021eko abenduaren 27an egindako txostenaren arabera, kutsatzeko arriskua eremu itxietan nabarmena da, eta, beraz, euskaltegiek euskara ikasteko zerbitzuak erantzukizunez eta osasun baldintza egokietan eskaini ahal izateko, klase bakoitzeko edukiera murriztea neurriko irizpidea da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2021eko irailaren 8ko Ebazpeneko I. eranskinaren 2. oinarriko 2.2 apartatuko j) letran ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua berriz ezartzea (hau da, udal titulartasuneko euskaltegi publikoek ikastaroen hasieran talde bakoitzeko izan behar duten gutxienerako ikasle-kopurua, 2021-2022 ikasturteko dirulaguntzen onuradun izateko, euskaltegia kokatuta dagoen herriaren neurriaren arabera) 2022ko urtarrilaren 10etik aurrera hasten diren taldeentzat. Ondorioz, 2022ko urtarrilaren 10etik aurrera hasitako taldeetan honako hauek izango dira gutxienerako ikasle-kopuruak:

Biztanle-kopurua	< = 5.000	5.001–10.000	10.001–25.000	> 25.001
Talde bakoitzeko gutxienerakoa	5	6	7	8

2022ko urtarrilaren 11, astearta

Bigarrena.– Interesdunei jakinaraztea ebazpen honek ez diola amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez diezaioketela Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko urtarrilaren 4a.

HABEko zuzendaria,
JOKIN AZKUE ARRASTOA.